

Ikerketaren arloko gastuen justifikazioari buruzko argibideak, koronabirusaren osasun-alerta dela eta

UPV/EHUK gomendio batzuk argitaratu ditu bere webgunean, eta honako helbide honetan eskura daitezke:

<https://www.ehu.es/eu/-/informacion-de-la-situacion-del-coronavirus-o-covid-19>

Nolanahi ere, guztiz ezinbestekoa ez bada ez bidaiatzea gomendatzen da, bereziki arrisku eremuetara bada. Arrisku eremuetara joan behar izanez gero, ikerketaren arloko errektoreordearen berriarazko eta idatzizko baimena beharko da, aldeztatik eskaera arrazoitua eginda eta saileko zuzendariaren oniritziarekin.

UPV/EHUko deialdien gastuak

Kasu partikular bakoitza aztertuko da, baina jarraian kasu ohikoenetarako jarraibide orokor batzuk ematen dira:

- Bidaia oraindik kontratatu ez den kongresuetara joateko edo egonaldiak egiteko, beharrezkoa izango da ezerezte-aseguru bat kontratatzea, bidaia baliogabetu behar bada ere. Ez dira ordainduko ezeztatze-asegurua kontratatu ez duten hasi gabeko bidaien gastuak.
- Nolanahi ere, balizko osasun-arriskuak estaliko dituen osasun-aseguru batekin atzerrira bidaiatzea gomendatzen da. Horretarako, UPV/EHUK IBILI BEREZI izeneko aseguru bat jartzen du bere langileen eskura. Aseguru hori Ondare Zerbitzuaren bidez kontratatu behar da:

<https://www.ehu.es/eu/web/kontratazioa/asegurua>

- Osasun-alertaren aurretik kontratatutako kongresuetarako bidaien kasuan, bidaia horiek geroago baliogabetzen badira, eragindako gastuak ordainduko dira, betiere ezinbesteko kausa badago eta hori bermatzen duen frogagiri bat badago.
- Osasun-alertaren aurretik kontratatutako egonaldien kasuan, harrera-erakundeak ez egitea gomendatzen badu, eragindako gastuak ordainduko dira, betiere harrera-erakundearen gomendioaren egiaztagiria aurkezten bada. Egonaldi hori aurrerago ere eskatu ahal izango da, lehendik egindako eskaera kontuan hartu gabe.
- Egonaldia zati batean egin bada eta harrera-erakundeak edo agintariek itzultzea gomendatzen badute, eragindako gastuak ordainduko dira, betiere dagozkion egiaztagiriak aurkezten badira. Beste egonaldi bat eskatu ahal izango da gainerako egunetarako, osasun-alerta altxatzen bada.

Kanpoko deialdien gastuak

Era berean, kasuz kasu aztertuko da, baina komenigarria da horri buruzko argibideak ematen ari diren erakunde finantzatzaileen webguneak kontsultatzea. Oro har, UPV/EHUK aurreko irizpideak erabiliko ditu, baldin eta erakunde finantzatzaileak gastu bat atzera botatzen badu koronabirusaren ondorioz.